

AKRONIMOEN LEXIKALIZAZIOA: HIESetik hiesera

Iñaki UGARTEBURU GASTAÑARES

Euskal Filologia. Medikuntza Fakultatea. EHU

1. Sarrera

Osasun zientzietan hain ugariak diren eraikuntza edo termino sintagmatikoez badute lexikalizatze joera. Termino hauek laburtu eta egokitu egiten ditu hiztun edo erabiltzaileak eta azkenerako elementu lexikal beregain berri gisa sar daitezke hizkuntzaren corpus lexikoan. Konbertsiozko neologismoak maiz sortzen dira erabilera esparru honetan, baina bada komunikazio honetan aztertu nahi den beste bide bat, berrikuntza fonologikoaren. Sintagmen lexikalizazioaz hitz bi esan ondoren sigla edo akronimoen lexikalizazioari ekingo diogu.

2. Eraikuntza sintagmatikoen lexikalizazioa

Joan den hamarkadaren hasieran aurkitu, deskribatu eta izendatu zen *hartutako immuno-eskasiaren sindromea* izeneko gaixotasuna. Beraz, erreferente berri bat sortu zen izendatu beharrekoa. Izendatze horretan ireki den lexikalizazio prozesua aztertzeak aukera bikaina eskaintzen digu termino sintagmatiko baten laburtzapenaren lexikalizazioa nola gerta daitekeen argitzen laguntzeko.

Kontuan izan dezagun, gainera, 'zera' horrek —gaixotasunak eta gaixotasunaren izenak—gizartean eta, ondorioz, hiztunen ahotan hartu duen leku zabala. Hain zuzen ere, azken urte hauetako hiztegi gehienek —hiztegi berriek nahiz lehenagoko hiztegien argitarapen berriek— jasotzen dute dagoeneko hitz berria (AIDS, aids, sida, hies), baita hitz honetatik eratorriak ere (*sidoso*, *hiesdun*). Urte hauetako ibilbide hori dugu aztertu beharrekoa.

Gerta daitezkeen izendatze berri hauetan ohikoa da, termino berria paradigma lexiko jakin batean txertatzen denean —gaixotasunaren izenen artean, adibidez—, izen generikoz eta izenlagunez osatzea sintagma. Halakoak ditugu *sueroaren gaixotasuna* edo *Down-en sindromea*, izenlaguna izen arrunta edo berezia delarik. Termino berriak erreferente arrunta izango du, nahiz eta lagunarteko erabileran era laburtuan jokatu.

Down-en sindrome asko diagnostikatzen da ospitale honetan
Down asko diagnostikatzen da ospitale honetan
Hodgkin-en linfoma du
Hodgkin bat diagnostikatu da
desfibrinazio sindrome bat
desfibrinazio bat
diesel (motore)a da egokiena lan horretarako

Lagunarteko erregistroko erabilera honek ez dirudi hitz berririk sortzeko indar handirik duenik, elementu generikoa zehazten duen izenlaguna (edo hitz elkartuko menpeko osagaia) izen berezia nahiz arrunta izanik, besteak beste hiztunaren intuizioak beti gordetzen duelako jatorrizko termino sintagmatikoaren kontzientzia. Izen berezia denean nekez gertatzen da azpikategorizazio aldaketarik (gerta daitekeen arren, *diesel* pertsona izena izen arrunt bilakatu da, *vacuna* izenondoa izen bilakatu da...), erraz identifikatzen baitu hiztunak izen generikoaren aposizio edo lagun modura. Izen bereziaren sintaxi eta erabilera arazoak (*Bach entzuten egon naiz*) aztertzeko ikus Gary-Prieur M.N. *Le nom prope constitue-t-il une catégorie linguistique?* 1990 (Haatik, inoiz izen bereziak eratorpen oinarri gisa joka dezake).

Pasteur > *pasteurizatu*, *pasteurizazio*

Izen arrunta bada, berriz, izena dugu (*desfibrinazio*) eta badu bere lekua lexikoan, eta ezin esan lagunarteko erabilera horretan elementu lexikal berria sortzen denik.

Baina, oro har, eraikuntza sintagmatiko hauek luzeak dira eta termino izaera duten neurrian, paradigma lexiko jakin batean txertatzen diren neurrian eta beren erabilera-maiztasunaren neurrian badute laburtzeko joera. Bi dira bide nagusiak

- Nagusiki ahoz jaso eta erabiliak hemen aztertuko ez dugun bidea dute lexikalizatzeke, konbertsiozkoa:

(capa) mucosa > *mucosa*; eusk. *mukosa*
las (madres) franciscanas > *las franciscanas*; eusk. *frantziskanak*
kalitate (on)eko jeneroa > **kalitateko jeneroa**
(medikamentu) antibiotiko > *antibiotiko*
sección de (derecho) jurídico
la (sociedad) bilbaina

Halakoak dira (*le dispositif interrupter*, (*la machine*) *calculatrice*... (ik. Kocourek, *La langue française de la Technique et de la Science* 1982, 68-70).

- Baina nagusiki idatziz abiatu direnak laburtzapena izan dezakete. Jakina da laburtzapena konbentzio bat baino ez dela, garai jakin batean sortua.

A.I.D.S. / S.I.D.A. / H.I.E.S. (Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromea)

H.I.E.S. > HIES aldaketa erraz gertatzen da, "como todos los elementos del lenguaje escrito, algunas abreviaturas sufren los efectos de la lexicalización o desgaste, mecanismo por el cual tienen cierta tendencia a variar su grafía (...) por la cual se les suprimen los puntos abreviativos y los grafemas se fusionan en un solo cuerpo cuerpo gráfico" (ik. Martínez de Sousa, *Diccionario de ortografía de la Lengua Española*, 1995: 26-27).

Bide batetik zein bestetik, irizpide bera dugu sortu den hitz hori hitz edo elementu lexiko berri eta beregaina dela pentsatzeko: hiztunaren kontzientzia edo intuizioa. Arazoa nekezago erabakitzen da eraikuntza sintagmatiko bat hitz izateraino (hitz elkartua esate baterako) iritsi ote den esateko, baina beste honetan —konbertsiozko neologismoen eta berrikuntza fonologikoaren kasuan— nahikoa dugu hiztun arruntaren gaitasunari kasu egitea. Ez dago *gorria erosi dut* entzutean erreferentea zein den jakiterik —testuan edo testuinguruan ez badago behintzat—, edo *gona erosi dut* gona horren ezaugarriak jakiterik. Baina *kalitateko jeneroa* esatean ez dago *nolako kalitatea?* galdetuko duen hiztunik; *kalitate* hitzak berak jaso du, hortaz, sintagma osoaren (*kalitate on*) esanahia. *Irritación de mucosas* esatean ere ez dago sintagma-buru litzatekeen *capas* aditzera eman beharrik; ez horrenbeste erreferentea testuinguruan aurki daitekeelako, eta bai *mukosa* hitzak berak erabateko autonomia lexikala duelako, izen kategoria hartuta.

Era berean, badirudi hiztun arruntak nekez deskodetuko duela HIES laburtzapena — hitza bere horretan ikasia du, corpus lexikoko elementu beregain modura—. Hain zuzen ere, hiztegi teknikoak dira gaur egun ere nagusiki HIES —inoiz H.I.E.S.— jasotzen dutenak, eta hiztegi orokor, entziklopediko eta arruntak dira HIES grafiarekin batera, *hies* grafia ere hartzen dutenak, komunikabideetako idazkiekin batera.

3. AIDS / SIDA / HIES hiztegietan eta testuetan

3.1. Kronologiari begira

Gaixotasunaren agerpenarekin eta zabalkundearekin batera hasi dira hiztegiak terminoa jasotzen, 1980ko hamarkadan.

AIDS / SIDA / HIES grafia erabili da eta erabiltzen da hiztegi tekniko, entziklopediko eta elebidun gehienetan —baita S.I.D.A. / A.I.D.S. ere—:

ESPASA 1986 "SIDA: siglas de Síndrome de Inmuno-Deficiencia Adquirida, enfermedad detectada en 1979 e identificada en 1981..."; *Macmillan Dictionary of immunology 1989*, "AIDS"; *Dictionary of immunology. Cruse & Lewd. CRC 1994*, "AIDS"; *Collins 1990*, "SIDA / AIDS"; *Elsevier's Encyclopaedic Dictionary of Medicine. A.F.Dorian 1982*: AIDS; *Diccionario Enciclopédico Ilustrado de Medicina DORLAND. Interamericana M 1985*: S.I.D.A. (A.I.D.S.); *International Dictionary of Medicine and Biology. Edit.Board 1986*, "AIDS"; *Dictionnaire des termes de Medicine. Garnier & Delaware. Maloine, Paris 1992*, "SIDA"; *Diccionario Terminológico de Ciencias Médicas. Masson, Barna 92*: "SIDA"; *Lur Hiztegi Entziklopedikoa 1993* HIES; *Ihardunaldi Medikoetako Hiztegia, OEE 1994*, "HIES"; *Elhuyar Hiztegi Elebiduna, 1996*, "HIES / SIDA"; *Encyclopaedia Britannica, Book of Year 1996* "AIDS"...

Baina azken urte hauetan (1989tik aurrera bereziki) "aids / sida" grafia jasotzen du hainbatek:

The Oxford English Dictionary, 2. argit. 1989. Cleendon Press. Oxford, "AIDS. Also Aids" —hiztegiak AIDS darabil, baina letra xehez ere idatzi ohi dela adierazten du, komunikabideetako erabileraren berri emanez—; *Vocabulario científico y técnico. Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales. ESPASA 1996*, "sida". *Diccionario actual de la lengua española. VOX, 1993*, "sida (de S.I.D.A., siglas de síndrome...)"; *Larousse 1993* "sida" —lehenagoko argitalpenetan "SIDA"—.

Eta nahasteak ere sortzen dira —hiztun arruntaren intuizioaren zalantzen erakusgarri agian—. *Hiztegia 3.000 hiztegi elebidunak (1996)*, euskara-gaztelania atalean: "HIES-SIDA", eta gaztelania-euskara atalean: "sida-hies".

3.2. Erabilera-esparruari begira

Hiztegiek baino lehenago erabaki dute grafiaren egokitzapena komunikabideek. Bietarako adibideak —letra larri, letra xehe—aurki daitezkeen arren, badirudi testu teknikoetan baino hedatuagoa dela hauetan letra xehez idatzitakoa.

1982 *Morbidity & Mortality Weekly Rep.* AIDS
 1983 *New Scientist* AIDS
 1983 *Observer* AIDS
 1984 *McGraw-Hill Yearbk. Sci. & Technol.* AIDS
 1985 *Daily Tel.* Aids
 1987 *Sunday Times* Aids
 1983 *N.Y.Times* AIDS-related
 1984 *European Jrnl. Cancer & Clin. Oncol.* pre-AIDS, AIDS-related

1986 *Daily Tel.* Aids

1987 *Economist* AIDS, AIDS-related

EL PAIS. Libro de Estilo 1990: sida: siglas de 'síndrome de inmunodeficiencia adquirida'. El uso las ha convertido en palabra común. Por tanto, se escribirá todo en minúsculas y en redonda: 'sida'.

EL MUNDO: 'Salud y Medicina' gehigarria (94-1-13): SIDA (tituluan) / el sida (testuan)..

Manual de español urgente EFE 95: SIDA (sigla)

EGUNKARIAren Estilo Liburua (1995): "hies".

3.3. Gaitasun lexikogenesikoari begira

Hizkuntz mailaren arabera erabakitzen da auzia. Teknikoan, hitz honi ez zaio eratorriak sortzeko gaitasunik aitortzen: AIDS serology, AIDS embryopathy, AIDS belt, AIDS patient, enfermo de SIDA —inoiz ez *sidoso*—, baina lexikalizazioak aurrera egin duen erabilera esparruan (komunikabideetan) badira halakoak "hiesdun, sídico, sidafobia...", baita hizkera arruntean "sidoso" bezalakoak —hitz horrek izan dezakeen esanahi peioratiboa gora-behera—.

3.4. Egokitzapen grafikoa

Ondorio gisa esan daiteke, lexikalizazio prozesuaren berri zuzenago —egokitzapen eta adierazpen grafikoa ere 'izen arrunt' bati dagokiona egiten den neurrian— ematen duen *hies* idazkera errazago aurki daiteke gaztelaniaz eta euskaraz ingelesez baino; errazago dibulgazioko eta komunikabide arruntetako testuetan zientifiko eta teknikoetan baino; errazago oinarri lexikogenetiko izan daitekeen inguruetan besteetan baino.

4. Sigla edo akronimoen lexikalizazioa

Ez da erraz aurrikusten sigla edo akronimo bat lexikalizatzeko egokia den edo lexikalizatzeko bidean dagoen, baina pentsa daiteke badirela batzuk besteak baino errazago jo dezaketanak bide horretatik. Beste kontu bat da, teoria lexikogenesikoari dagokiona, jakitea zergatik batzuetan bai iragaten den hitz berria corpus lexikora eta beste batzuetan ez —arazoa zabala da, eratorpenari eta elkarketari ere badagokiona—. Badirudi badirela sigla edo akronimo bat lexikalizatzea erraztu dezaketean hainbat eragile.

4.1. Elementu lexiko beregain modura zabaldu eta ikasiak

Hiztunak ez du erreferentea ezagutzen. Hiztun gehienek, dibulgazio-testuen eta komunikabideen jarrera didaktiko esplikatiboa gora-behera, badakite zer den delako HIES hori, baina ez siglaren esanahia; elementu lexiko horren erreferentea gaixotasun baten izena dela —izen arrunt kategoriako elementu lexikoa, alegia—, ez besterik. Ohikoa da hainbat ordenadore-erabiltzailek beren PCak honenbeste *mega* duela esatea. Hiztun arruntaren ikuspegi eta intuiziotik *mega* izen arrunta da, ez da ezeren laburtzapena, eta lexikalizatu ere egin liteke, bereziki egoera jakin batzuetan.

- termino teknikoak hizkera erregistro arruntera iragaten denean: terminoa esparru teknikoan gordetzen bada edo dibulgazioko testuetan beti bere erreferentea adierazia eskaintzen bada, hiztun arruntak laburtzapenaren kontzientzia gordeko du
- termino teknikoak zabalpen handia hartzen duenean hiztunen artean

Dena den, erreferente ezezaguna duten termino zientifiko-teknikoak ez dira berez lexikalizatzen. Gaixo askok daki esaten ospitalean TAK bat egin dietela, baina nekez bilakatuko da sigla hori hitz arrunt, beste eragilerik tartean ez bada.

4.2. Silabaren egitura gordetzen duten sigla eta akronimoak

Errazako lexikalizatuko dira silabaren egitura gordetzen duten sigla eta akronimoak. Alde horretatik, HIES siglak ez du ahoskera arazorik eta bi silabako hitz arrunt modura senti dezake hiztunak —analogiaz besterik ez bada ere—. Gauza bera dugu gaztelaniazko SIDA hitzarekin; nekez ahoskatuko genuke, ordea, hitz modura SIDC (*síndrome de inmunodeficiencia congénita*). Beraz, deletreoa eskatzen duten siglak erraz geratzen dira sigla (hizkuntz elementu arbitrario, ez natural) modura hiztunaren kontzientzian: OLT (ATS), HPIN, DNI, VHI...

Gainera, errazago lexikalizatuko dira batzuk besteak baino, kantitate fonikoaren arabera: hies, sida, laser, radar —azken bi hauek ez dira, jakina, euskaraz lexikalizatu; euskal hizkuntzan mailegu baino ez dira eta euskal hitz arruntak ez du hitz horien aurrean sigla direlako inolako kontzientziarik—... Silaba bakarrekoak nekezago: *nan, tac, tak, gib, bez...* Are nekezago beste arrazoiak tarteko direnean —deletreatu beharra, erreferentetzat izen nagusia izatea...—

Begien bistan dago, bestalde, prozesua oso desberdin gertatzen dela hitz batetik bestera. Horrela, pentsa liteke erraz lexikalizatzeko modukoak direla gaztelaniazko OPA edo OTA (euskarazko TAO), baina hitz horien zabalpen urriarengatik (hizkera arruntean) edo duten erabilera eremu bereziarengatik, ez dirudi hiztunaren intuizioak hitz arrunt modura sentitzen dituenik.

Bestelako adibideren bat emateko, badugu erabilera tekniko bereziko hitz bat edo beste lexikalizatzen iritsi dena, letra xehezko idazkerak nolabaiteko lexikalizazio subjektiboa adieraz dezakeen neurrian. DOPA (*dihidroxifenilalanina*) horrela idatzia erabili ohi da (*Patología General, Balcells, Toray 1974*, adibidez), baita elkartuetan ere (DOPA dekarboxilasa). Baina erabilera horren ondoan bada *dopa* ere (*Principles of Internal Medicine, Harrison 1973*, adibidez): *dopa, reacción de la dopa...* Eta oinarri modura ere jokatu du hainbatetan: dopamina...

4.3. Oinarri lexikogenesiko diren terminoak

Ingelesez AIDS, AIDS-related edo AIDS patient egiten bada ere, badirudi gaztelaniaz bere bidea egin duela SIDA terminoak hitz berriak sortzeko oinarri modura. Jakina da, hitz eratorri hauek maila arruntekoak direla eta nekez erabiliko direla eremu teknikoak —gaur egun behintzat; pentsa liteke *tuberculoso* bezala *sidoso* ere erabiliko dela agian inoiz liburu zientifiko-teknikoetan ere—. Hona adibide batzuk.

Manual de español urgente EFE 95: "SIDA (sigla), sídico, sidoso (no sidático)"

EL PAIS. Libro de Estilo 1990: "sídico: adjetivo relativo al sida; sidoso: afectado por el sida"

Diccionario actual de la lengua española. VOX, 1993: "sida (de S.I.D.A., siglas de síndrome...), sidafobia"

EGUNKARIAren Estilo-Liburua, 1995: "hiesdun"

Hiztegia 3.000 hiztegi elebiduna (1996): "hiesdun"

Zaila da halakoetan bereiztea zein den hizkuntzaren berezko ibilbidea eta zein itzulpenaren eta analogiaren garrantzia. Horrela, gaztelaniaz badira ETA (Euskadi Ta Askatasuna) eta *etarra*, nahiko zabalduak. Euskaraz *etar* (adiera horretan) onartzen ez badugu ere (aitortu egin behar lagunartekoan erabiltzen dela), bada komunikabide eta hiztegietan *etakide*, *ETAko* deklinatuaren ondoan. Nekez esango dugu *elakide* edo *ehukide*, baina *etakide* hitza bere bidea egiten ari dela dirudi.

4.4. Erreferentetzat izen arrunta duten terminoak

Halakoak dira *hies*, *sida*, *laser* (light amplification by stimulated emission of radiation), *napalm* (naphtenic acid and palmetate)...

Kontu egin dezagun akronimoak adierazten duena izen arrunta edo berezia izan daitekeela, eta sintagma baten laburtzapena baldin bada maiz izaten dela izen generiko bat sintagmaburu.

Izen berezia erreferentetzat dutenak (instituzio izenak...): HPIN, HB, PP, UGT, UPV / EHU, RENFE, SNCF... Hauek izen generiko bat izan ohi dute laburtzapenaren oinarri den sintagman (Hizkuntz Politikarako IDAZKARITZA Nagusia, Herri BATASUNA, PARTIDO popular, UNION General de Trabajadores, UNIVERSIDAD del País Vasco / Euskal Herriko UNIBERTSITATEA), RED Nacional de Ferrocarriles Españoles...). Gaztelaniaz artikularekin erabiñli ohi dira: la RENFE, el PP... baina ez *la red RENFE, *el partido PP. Halakoetan izen generikoa eta sintagmak duena bat ez datozenean bakarrik onartzen da esplizitazioa: la coalición IU, la organización ETA, el sindicato UGT... Bestalde, oinarriko sintagmak izen generikorik ez duenean ez da onatzen artikulua (lagunarteko erabileran arrunta izan arren): * la ETA, * el UGT... Euskaraz erreferentetzat izen berezia duten siglak artikulurik gabe erabili ohi ditugu: EHUK, HBren, PPk... eta ez da onartzen izen generikoaren esplizitazioa (EHU unibertsitatea, HPIN idazkaritza...) aposizio modura ez bada (HPIN, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia...). Dena den, euskaraz badira izen berezi modura erabili daitezkeen hainbat izen arrunt (Bizkaia, Euskaltzaindia...) eta ez da, beraz, harritzeko hauetan bezalaxe izen arrunt generiko batetik lexikalizatu diren izen berezietan euskal hiztunak arazoak izatea. Horrela erraz entzun daitezke lagunarteko hizketan "*Renfiak ez dau dirurik gastauko horretan*" bezalakoak. Arazo hau ez da, baina, siglen erabilerari dagokiena eta bai izen arrunt / berezi banaketa eta erabilerari, eta ez da lan hau hori aztertzeke leku egokiena.

Izen arrunta erreferentetzat dutenak: HIES, BEZ, TAO, ADN... Hauek gaztelaniaz artikularekin erabiltzen dira denak, letra larriz edo xehez idatziak —horrek adieraziko digu neurri batean zenbateraino iragan diren corpus lexikora hitz beregain modura—: la OTA, el ADN, el IVA, un Talgo, el sida... eta ez da, oro har, onartzen izen generikoaren aipamena (* el impuesto IVA, * el síndrome SIDA, * el ácido ADN...). Euskaraz artikulua behar dute: HIESa, edo lexikalizatu den neurrian *hiesa* —usadioaren arabera ez da artikulua idazten hitzaren amaiera 'a' denean: RNA—, baina, oro har, aposizioaren bidetik jotzen da BEZ izeneko zerga. Pentsa daiteke hiztunak *hies gaitza* edo *hies sindromea* arazorik gabe onartzeak, nolabait hitz horren lexikalizazio gradua adierazten digula, nekez onartuko baikenuke *ADN azidoa* (?). Antzera gertatzen da gaztelaniaz *tren expreso procedente de...* bezalaxe *tren talgo procedente de...* onartzen denean; hain zuzen ere grafia ere egoitua du *talgo* hitzak gaztelaniaz.

4.5. Beste hizkuntza batean lexikalizatutakoak

Halako hitzak berez datozkigu mailegatuak hiztegiko elementu beregain modura eta ez du hiztunak hitz horiek sigla edo akronimo diren inolako kontzientziarik —ikasi beharra dago akronimo direla, beste hitz batzuen etimologia ikasi beharra dagoen bezala—: *Ladar* (laser detection and ranging), *pal* (phase alternating line) *sistema*, *secam* (séquentiel couleur à mémoire) *sistema*, *laser*, *radar*...

5. Ondorioak

5.1. Sigla eta akronimoek hizkuntza idatzia dute sorburu, eta erabilera eremu teknikoan sortzen dira gehien bat. Beraz, nekez lexikalizatuko dira, termino horien jatorriaren kontzientzia erraz gordetzen delako eta sarri askotan beren erreferentea izen berezia delako.

- 5.2. Erreferentea izen arrunta denean, sigla bat lexikalizatu egin daiteke bere erabilera hedatzen baldin bada, hizkera erregistro guztietara —arrunt eta lagunartekora bereziki — iragaten bada, eta hitz arruntaren itxura fonetiko-silabikoa har badezake. Adibiderik garbientako bat *hies* hitza dugu.
- 5.3. Beste hizkuntza batzuetan lexikalizaturiko sigla eta akronimoak elementu lexikal beregain modura hartzen ditugu eta ez dira sigla hiztun arruntarentzat (*radar...*).

BIBLIOGRAFIA

Lekukotasun bila kontsulta modura erabilitako liburu, egunkari eta hiztegien berri testuan bertan ematen da.

CATACH, N. de. (1990): Pour une theorie de la langue ecrite: actes de la table ronde internationale. C.N.R.S.-H.E.S.O. Paris 1986. Edit. CNRS Paris.

EGUNKARIA (1995): Estilo liburua. Euskaldunon Egunkaria, Donostia.

KOCOUREK, R., (1982), La langue française de la technique et de la science, Oscar Brandstetter Verlag WIESBADEN.

MARTINEZ DE SOUSA J. (1978). Diccionario internacional de siglas. Edit. Pirámide, Madrid.

MARTINEZ DE SOUSA, J. (1987). Diccionario de ortografía técnica. Biblioteca del libro. Ed. Pirámide. Madrid.

MARTINEZ DE SOUSA J. (1996). Diccionario de ortografía de la lengua española. Ed. Paraninfo, Madrid

POLO, JOSE. (1974). Ortografía y ciencia del lenguaje. Edit. Paraninfo

UZEI (1988). Laburtzapenen gidaliburua. Elkar, Donostia.

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Akronimoen lexikalizazioa: HIESetik hiesera

1. Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea termino modura eratu da entitate nosologiko jakin bat izendatzeko. Nekez aitortuko diegu termino izaera gaztelaniazko *síndrome gripal* bezalakoei, ordea. Termino honek (HIES), gaixotasun edo egoera patologiko jakin bat izendatzeko darabilgun neurrian, paradigma lexiko batean hartzen du bere lekua eta nolabaiteko lexikalizazio prozesua gertatzeko aukera edo egoeran gertatzen da. Jakina da prozesu hori konplexua dela eta faktore askoren eraginez bidera daitekeela, baina kasu honetan hauek izan dira azken urteetako pausoak:

- 1.1. Akronimoa sortu eta erabilera hedatu. Nekezago gertatzen da akronimoaren finkatzea terminoa oso erabilia ez denean edo hizkuntz erregistro partikular batean baino ageri ez denean (ez dirudi gaztelaniazko *síndrome de inmunodeficiencia congénita* bezalako batek akronimoa sortuko duenik, edo sorturik ere akronimo hori erraz lexikalizatuko denik). Baina badira akronimoa sortzeko eta finkatzeko

orduan beste eragile batzuk ere. Errazago hedatuko dira silabeatu daitezkeenak, hau da, hizkuntza naturaleko elementu lexiko arrunt baten pareko gertatzen direnak; errazago hedatuko dira eta lexikalizatzeko aukera handiagoa izango dute HIES edo ETA bezalakoek HPIN edo HAEE bezalakoek baino (*hiesa, etakidea...*). Errazago sortuko dute akronimoa eta errazago lexikalizatuko dira egitura batzuk beste batzuk baino; adibidez, sintagma barnean izen berezia dutenek (izen arrunt jenerikoa+izen berezia) errazago hartuko dute beste lexikalizazio bide bat. Horrela, *Alzheimerren gaixotasuna* bezalako terminoak erreferentzia izendatzeko darabilten hitz ez-jenerikoa erabiliko dute lexikalizatzekotan (*Alzheimerra*).

1.2. Akronimoaren erabilera zabalduz doan neurrian eta termino hori paradigma jakin batekoa den neurrian hiztunaren intuizioak idazkera ere hartara egokitzeko joera du (are gehiago ahoskerak ere hartarako aukera ematen badio, hitza silabeatu egin daitekeelako). Horrela aurkitu ditugu azken urteetan honako grafiak, alde batera utzita garai batean erabili ziren H.I.E.S. bezalakoak (gaztelaniaz S.I.D.A. dugu adibidez 1985eko *Diccionario enciclopédico de medicina Dorland* hiztegian).

1.2.1 Ingelesean AIDS edo *aids*. 1989eko *The Oxford English Dictionary* hiztegian adibidez hala dio: *AIDS* also *Aids*. Eta bertan aukeran eskaintzen diren aldizkarietako adibideetan ikus daiteke bietara idatzi ohi dela. AIDS 1982 eta 1986 arteko adibideetan (*Morbidity & Mortality Weekly Rep.*, *Mc Graw-Hill Yearbk. Sci&Technol.*, *Daily Tel.*), *aids* 1985etik aurrekoetan (*Sunday Times...*) eta beti AIDS forma aurrizkidun edo elkartuetan (*pre-AIDS, AIDS-related...*)

1.2.2 Frantsesean eta gaztelaniaz ere idazkera biak ageri dira (1996ko *Vocabulario científico y técnico de la Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales* hiztegian *sida* dugu, adibidez, nahiz eta SIDA den zabalduena)

1.2.3 Euskaraz ere idazkera biak ditugu. HIES jasotzen du Elhuyar hiztegi elebidunak (1996) eta *hies* Hiztegia 3000 izenekoak. HIES hartzen du OEE izeneko mediku-elkartearen erabilera-hiztegiak (*Ihardunaldi Medikoetako Hiztegiak* 1994) eta *hies* (*hiesa, hiesduna...*) proposatzen du EGUNKARIAren *Estilo-Liburuak*.

Beraz, lexikalizazio prozesu horretan azken urratsa gertatzen ari dela esan daiteke; hau da, *hies* idazkera erabiliz akronimoaren jatorrizko erreferentzia zeharo galtzera iritsiko litzateke eta hiztun arruntak (mediku edo hizkuntzalari ez denak) elementu lexikal arrunt modura hartu eta erabiliko luke (*radar* hitzaren antzera).

2. *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea* terminoaren lexikalizazioa bere adierazpen grafikoan azken punturaino eramanez (*hies*), edo gabe (HIES) ere, esan daiteke gaur egun hitz soila izatetik hurbil dagoela eta hor ageri da bigarren arazoa, erabilerari dagokiona (mugatzaila behar duen edo ez).

2.1. Izen arruntek erreferente anitza dute eta oro har, mugatzaila hartzen dute. Salbuespen modura hartu beharko genituzke *andereño* bezalakoak (eta oro har, izen arrunta edo berezia erreferenteari inplizituki esleitzen diotenak: *aita*, tituluak...). Beste ikuspegi batetik (*Izen berezia eta anbiguotasuna*. Marc WILMET 1992) tradizioz izen arrunt bezala hartu ditugunekin batera hartu beharko genituzke jai-egunen izenak, matematikako sinboloak, siglak eta akronimoak, jentilizioak... Izen bereziek erreferente bakarra dute eta mugatzailerik gabe erabili ohi dira. Izen arruntan eta berezien idazkera letra larria eta xehea erabiliz bereizten da.

- 2.2. Jatorrian izen arrunt izan arren erreferente bakarra dutenak izen bereziak dira (mugatzaila izan dezaketen arren) eta letra larriz idazten dira. Deklinatzerakoan bi modutakoak ditugu.

Euskaltzaindia eta *Bizkaia* bezalakoak (izen arrunten erara deklinatzen dira, lekuzko kasuetan mugatzailerik gabe) eta EGUNKARIA eta *Etsaiak* bezalakoak (mugatzaila barne deklinatzen dira).

- 2.3. Akronimoak ere erreferentearen arabera deklinatzen dira. Gehienetan erreferente bakarrak izango dira (erakunde izenak eta) baina batzuetan izen arrunten pareko izan daitezke (hiesa). Oro har, paradigma jakin batzuetako elementuek izen arrunten portaera dute, berrikuntza fonologikoz sortuak direla (*hies*) edo izen berezietatik datozela (*diesel*). Baina maiz gertatzen dira zalantzak.

- 2.4. Sailkapena egitea komeni da izen berezi modura lexikalizatzen diren terminoen egiturak eragina izan dezakeelako erabileran. Hor ditugu erdarazko *el río Negro* eta *el Río de la Plata*, *Le Havre* eta *La Trinité*... Badira izen soilak (jenerikoak, *Argia*, *Etsaiak*...) edo hitz elkartu edo eraikuntza sintagmatikoak (hauetan hitz bat izan daiteke jenerikoa, *Euskadi Irratia*, *Herri Batasuna*). Barne egituraren arabera modu batera edo bestera erabiltzeko joera izan daiteke. *La Real (Sociedad)*, *Athletic (taldea)*, *Euskaltzaindia*, *EGUNKARIA*, *le CNRS*, *El Diario VASCO*, *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea*...

- 2.5. Sailkapen hori eginik eta hiztunaren erabileran (*Athletic-ek/Atletixak*) eragina duten elementuak kontuan izanik errazago ezar liteke estilo-araua, bai jatorri arrunteko baina izaera bereziko (erreferente bakarreko) hitzen kasuan, baita lexikalizatu bidean dauden akronimoei dagokienean ere. Gaiak, bestalde, lotura estua du lan honetan aztertuko ez den baina planteatu nahi den beste batekin. Izendapenerako erabiltzen diren izen arrunt jeneriko+izen berezi erako sintagmen erabilera nahasia gertatzen ari da euskaraz (*Ama Mesedeetakoa Kalea/Ama Mesedeetakoaren Kalea?*, *Plaza Berria*, *Bilbaina Elkarte*?) baina administrazio arloan halako eragina duen gaztelanian ere (*calle de Alcalá/*calle Alcalá*, EL PAÍS-en Estilo Liburua 1990) eta aztertzea komeni da.

Lexicalización de acrónimos: de HIES a hies

1. Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea (Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida) se ha acuñado como término, para denominar una determinada entidad nosológica. Difícilmente se podría conceptuar como término lo que en castellano viene a denominarse *síndrome gripal* y otros similares. Este término (HIES), en la medida que lo utilizamos para designar una enfermedad o estado patológico dado, se incorpora a un paradigma léxico, y se suma, en cierto modo, a un proceso de lexicalización. Por supuesto que este proceso es complejo, y que puede dirigirse por obra de numerosos factores, pero en el caso que nos ocupa las etapas recorridas en los últimos años son las siguientes:

- 1.1. Creación y divulgación del acrónimo. Será más difícil que se consolide como acrónimo un término que no sea comúnmente utilizado o que esté restringido a un registro lingüístico particular. No parece posible que secuencias como *síndrome de inmunodeficiencia congénita* puedan producir un acrónimo, y menos aún que el acrónimo pueda lexicalizarse. Pero también inciden otros factores a la hora de crear y consolidar acrónimos. Siempre será más fácil la divulgación de aquellos que puedan pronunciarse silábicamente, ya que así resultan del todo semejantes a los elementos léxicos comunes de la lengua natural; así, tendrán más posibilidades de lexicalizarse y de extenderse los acrónimos del tipo HIES o ETA (hiesa, etakidea...) que aquellos otros como HPIN o HAEE. Asimismo, algunas estructuras serán más proclives a producir acrónimos y a lexicalizar que otras; por

ejemplo, las que tienen nombre propio dentro del sintagma (nombre común genérico+nombre propio) podrán adoptar más fácilmente otra forma de lexicalización. Así, términos como *Alzheimerren gaixotasuna* (enfermedad de Alzheimer), en caso de lexicalizarse, lo harán a partir de la palabra no genérica que se utilice para designar el referente (*Alzheimerra*).

1.2. A medida que se divulga el uso del acrónimo y de que el término forme parte de un paradigma, la intuición del hablante le impulsará a adaptarlo a su escritura; sobre todo si la pronunciación puede hacerse por sílabas. Así lo atestiguan las grafías de los últimos años, dejando a un lado grafías como S.I.D.A. tal como figura en el *Diccionario enciclopédico de medicina Dorland* de 1985.

1.2.1 En inglés aparece *AIDS* o *aids*. En *The Oxford English Dictionary*, por ejemplo, se dice: *AIDS*. Also *Aids*. En el mismo diccionario se pueden encontrar ejemplos de los dos tipos. *AIDS*, entre 1982 y 1986 (*Morbidity & Mortality Weekly Rep., M Graw-Hill Yearbk. Sci&Technol., Daily Tel.*), *aids* a partir de 1985 (*Sunday Times...*) y en las formas compuestas o con prefijos siempre *AIDS* (*pre-AIDS, AIDS-related...*)

1.2.2 Tanto en francés como en castellano aparecen las dos modalidades (en el *Vocabulario científico y técnico de la Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales* de 1996 podemos encontrar *sida*, por ejemplo, aunque el más extendido sea *SIDA*).

1.2.3 En euskera también podemos encontrar ambas grafías. En el diccionario bilingüe Elhuyar de 1996 aparece *HIES*, en el *Hiztegia 3000 hies*. La Asociación Médica OEE recoge *HIES* en su diccionario de uso (*Ihardunaldi Medikoetako Hiztegiak, 1994*) y el Manual de Estilo de EGUNKARIA propone *hies* (*hiesa, hiesduna...*)

De lo dicho se desprende que nos hallamos en el último estadio del proceso de lexicalización, con lo que el hablante medio (que no sea médico, ni lingüista) perderá totalmente la referencia original del acrónimo y lo tomará y utilizará *hies* como un elemento lexical común (al igual que la palabra *radar*).

2. Tanto si la expresión gráfica de la lexicalización del término *Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromea* (*Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida*) llega a su extremo (*hies*) o no (*HIES*), lo cierto es que actualmente se encuentra bien cerca de ser una palabra común, con lo que en euskera sobreviene la cuestión de si debe llevar determinante o no.

2.1. Los nombres comunes tienen un referente plural, y en general, llevan determinante. Como excepción pueden mencionarse *andereño* y todos aquellos que atribuyen un nombre común o propio al referente: *aita*, los títulos... Desde otro enfoque (*El nombre propio y la ambigüedad. Marc WILMET 1992*), deberíamos incluir dentro de los que tradicionalmente hemos considerado como nombres comunes a los que designan los días festivos, los símbolos matemáticos, las siglas y acrónimos, los gentilicios... Los nombres propios tienen un referente único, y suelen utilizarse sin determinante. El empleo de mayúsculas o minúsculas será el elemento diferenciador de los nombres comunes y los propios.

2.2. Los que tienen un referente único son nombres propios, aunque hayan sido en un principio nombres comunes y puedan llevar determinante, y se escribirán en mayúsculas. En cuanto a su declinación, pueden diferenciarse dos tipos: los que se declinan como *Euskaltzaindia* y *Bizkaia* (como nombres comunes, pero sin determinante en los casos locativos), y los del tipo EGUNKARIA y *Etsaiak* (que se declinan con determinante incluido).

- 2.3. Los acrónimos también se declinan según el referente. La mayor parte de las veces serán de referente único (denominaciones de instituciones), pero algunas veces pueden resultar equivalentes a nombres comunes (hiesa/sida). En general, los elementos de ciertos paradigmas presentan el mismo comportamiento de los nombres comunes, creados por reestructuración fonológica (hies) o a partir de nombres propios (diesel). Pero frecuentemente surgen dudas.
- 2.4. Resulta conveniente hacer una clasificación, ya que la estructura de los términos que se lexicalizan como nombres propios puede tener repercusión a la hora de su utilización. En castellano y en francés podemos encontrar algunos ejemplos: *el río Negro* y *el Río de la Plata*, *Le Havre* y *la Trinité...* Existen los nombres simples (genéricos: *Argia*, *Etsaiak...*) o palabras compuestas o de construcción sintagmática (en éstas puede haber una palabra genérica: *Euskadi Irratia*, *Herri Batasuna*). Según la estructura interna, puede haber una tendencia a su utilización en un sentido u otro. *La Real (Sociedad)*, *Athletic (taldea)*, *Euskaltzaindia*, *EGUNKARIA*, *le CNRS*, *El Diario VASCO*, *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea*.
- 2.5. Una vez realizada la clasificación y tomados en cuenta los elementos que influyen en el uso del hablante (*Athletic-ek/Atletixak*), se podría establecer más fácilmente la norma de estilo, tanto en el caso de las palabras de origen común pero de entidad de nombre propio (referente único), como en lo que se refiere a los acrónimos en vías de lexicalización. Esta cuestión, por otra parte, guarda estrecha relación con la que se plantea a continuación, que aunque no se haya tocado en este estudio convendría abordar. Se trata de la confusión en el uso de los sintagmas de designación del tipo “nombre común genérico+nombre propio”, tanto en euskera (*Ama Mesedeetako kalea / Ama Mesedeetakoaren kalea ?*, *Plaza Berria*, *Bilbaina Elkartea?*), como en el castellano de corte administrativo (*calle de Alcalá / *calle Alcalá*, Libro de Estilo de EL PAÍS, 1990).

Lexicalisation d'acronymes: de HIES à hies

1. Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea (Syndrome d'Immunodéficience Acquise) s'est instauré comme terme pour dénommer une entité nosologique déterminée. On pourrait difficilement considérer comme terme ce qui s'appelle *syndrome grippal* ou d'autres similaires. Ce terme (HIES), dans la mesure où nous l'utilisons pour désigner une maladie ou un état pathologique donné, s'incorpore à un paradigme lexicale, et s'ajoute, d'une certaine façon, à un processus de lexicalisation. Bien entendu ce processus est complexe, et il peut être dirigé par l'action de nombreux facteurs, mais dans le cas qui nous occupe, les étapes parcourues dans les dernières années sont les suivantes:

- 1.1. Création et divulgation de l'acronyme. Il sera plus difficile qu'un terme qui n'est pas utilisé habituellement ou qui est restreint à un registre linguistique particulier se consolide comme un acronyme. Il ne semble pas possible que des séquences comme *syndrome d'immunodéficience congénitale* puissent produire un acronyme, et encore moins que l'acronyme puisse être lexicalisé. Mais d'autres facteurs interviennent aussi au moment de créer et de consolider des acronymes. La divulgation de ceux qui peuvent être prononcés syllabiquement sera toujours plus facile, puisque de cette façon ils sont tout à fait semblables aux éléments lexicaux communs de la langue naturelle; ainsi, des acronymes du type HIES ou ETA (hiesa, etakidea...) auront plus de possibilités de se lexicaliser et de se répandre que ceux comme HPIN ou HAEE. De même, certaines structures seront plus portées à produire des acronymes et à lexicaliser que d'autres; par exemple, celles qui ont un nom propre dans le syntagme (nom commun générique + nom propre) pourront plus facilement adopter une autre forme de lexicalisation. Ainsi, des termes comme

maladie d'Alzheimer, dans le cas où ils seraient lexicalisés, le seront à partir du mot nom générique utilisé pour désigner le référent (*Alzheimer*).

1.2. Au fur et à mesure qu'est divulgué l'usage de l'acronyme et que le terme fait partie d'un paradigme, l'intuition du parlant le poussera à l'adapter à son écriture; surtout si la prononciation peut se faire par syllabes. Ainsi en témoignent les graphies des dernières années: dans le *Diccionario enciclopédico de medicina Dorland* de 1985 apparaissait S.I.D.A.

1.2.1 En anglais apparaît *AIDS* ou *aids*. Dans *The Oxford English Dictionary*, par exemple, on dit *AIDS*. *Also Aids*. Dans ce même dictionnaire on peut trouver des exemples des deux types. *AIDS* entre 1982 et 1986 (*Morbidity & Mortality Weekly Rep.*, *M Graw-Hill Yearbk. Sci& Technol.*, *Daily Tel.*), *aids* à partir de 1985 (*Sunday Times...*) et dans les formes composées ou avec des préfixes, nous trouvons toujours *AIDS* (*pre-AIDS*, *AIDS-related...*).

1.2.2 Aussi bien en français qu'en espagnol les deux modalités apparaissent (dans le *Vocabulaire scientifique et technique de l'Académie Royale des Sciences Exactes, Physiques et Naturelles* de 1996 nous pouvons par exemple trouver *sida*, bien que le plus répandu soit *SIDA*).

1.2.3 En euskera nous pouvons également trouver les deux graphies. Dans le dictionnaire bilingue Elhuyar de 1996 apparaît *HIES*, dans l'*Hiztegia 3000 hies*. L'Association Médicale OEE reprend la graphie *HIES* dans son dictionnaire d'usage (*Ihardunaldi Medikoetako Hiztegia*, 1994) et le Manuel de Style EGUNKARIA propose la graphie *hies* (*hiesa*, *hiesduna...*).

De tout qui a été dit précédemment, on peut déduire que nous nous trouvons dans la dernière phase de lexicalisation, et donc le parlant moyen (qui ne sera ni médecin ni linguiste) perdra complètement la référence originale de l'acronyme et il le prendra, et utilisera *hies* comme un élément lexical commun (tout comme le mot *radar*).

2. Même si l'expression graphique de lexicalisation du terme *Hartutako Imuno-Eskasiaren Sindromea* (*Syndrome d'Immunodéficience Acquise*) parvient à son extrême (*hies*) ou non (*HIES*), il est certain qu'actuellement il n'est pas loin de devenir un nom commun, et donc en euskera la question se pose de savoir s'il doit avoir un déterminant ou non.

2.1. Les noms communs ont un référent pluriel, et en général, ils ont un déterminant. Comme exception nous pouvons citer *andereño* et tous ceux qui attribuent un nom commun ou propre au référent: *aita*, les titres... A partir d'une autre optique (*Le nom propre et l'ambiguïté*. Marc WILMET, 1992) nous devrions introduire dans ceux que, traditionnellement, nous avons considéré comme des noms communs, les noms qui désignent les jours fériés, les symboles mathématiques, les sigles et les acronymes, les noms des habitants d'une ville... Les noms propres possèdent un référent unique, et ils sont généralement utilisés sans déterminant. L'emploi de majuscules ou de minuscules sera l'élément qui marquera une différence entre les noms communs et les noms propres.

2.2. Ceux qui possèdent un référent unique sont les noms propres, bien qu'ils aient été au début des noms communs et qu'ils puissent avoir un déterminant, ils s'écriront en majuscules. Quant à leur déclinaison, nous pouvons distinguer deux types: ceux qui se déclinent comme *Euskaltzandia* et *Bizkaia* (comme noms communs, mais sans déterminants dans les cas locatifs), et ceux du type EGUNKARIA et *Etsaiak* (qui se déclinent avec un déterminant).

- 2.3. Les acronymes se déclinent aussi en fonction du référent. La plupart du temps ils auront un référent unique (dénominations d'institutions), mais parfois ils peuvent être équivalents à des noms communs (*hiesa/sida*). En général, les éléments de certains paradigmes présentent le même comportement que les noms communs, créés par restructuration phonologique (*hies*) ou à partir de noms propres (*diesel*). Mais des doutes apparaissent fréquemment.
- 2.4. Il convient de faire une classification, puisque la structure des termes qui se lexicalisent comme des noms propres peut avoir une répercussion au moment de leur utilisation. En espagnol et en français nous pouvons trouver certains exemples: *le "Río Negro" et le "Río de la Plata", Le Havre et la Trinité...* Il existe des noms simples (génériques: *Argia, Etsaiak...*) ou les mots composés ou de construction syntagmatique (dans ceux-ci il peut y avoir un mot générique: *Euskadi Irratia, Herri Batasuna*). En fonction de la structure interne, il peut y avoir une tendance à leur utilisation dans un sens ou dans un autre. *La Real (Sociedad), Athletic (taldea), Euskaltzaindia, EGUNKARIA, le CNRS, le Diario VASCO, Hartutako Immuno-Eskasiaren Sindromea*.
- 2.5. Une fois la classification réalisée, et tenant compte des éléments qui ont une influence dans l'usage du parlant (*Athletic-ek/Atletixak*), on pourrait établir plus facilement la norme de style, aussi bien dans le cas des mots d'origine commune mais d'entité de nom propre (référent unique), que pour celui qui concerne les acronymes en voies de lexicalisation. D'autre part, cette question garde une relation étroite avec celle qui est posée à la suite, qui bien qu'elle n'ait pas été abordée lors de cette étude, il conviendrait de le faire. Il s'agit de la confusion dans l'usage des syntagmes de désignation du type "nom commun générique + nom propre", aussi bien en euskera (*Ama Mesedeetako kalea / Ama Mesedeetakoaren kalea, Plaza Berria, Bilbaina Elkarte?*), que dans l'espagnol de style administratif (*calle de Alcalá/ *calle Alcalá*, Livre de Style de EL PAIS, 1990).

Lexicalisation of acronyms: from HIES to hies

1. The term *Hartutako Immuno-Eskasiaren Sindromea* (Acquired Immunodeficiency Syndrome) was coined to describe a particular disease. It is hard to imagine using what in Spanish is called *síndrome gripal* (flue syndrome) or other similar expressions as a single term, but the term HIES (AIDS) is used to refer to a particular disease or pathological condition, and as such it enters a lexical paradigm and becomes involved after a fashion in a process of lexicalisation. This process is, of course, complex and can be swayed by many factors. However the stages through which this term has gone in recent years are the following:

- 1.1. Creation and dissemination of the acronym. Consolidation as an acronym is more difficult for a term which is not commonly used or which is restricted to a particular linguistic register. Sequences such as *congenital immunodeficiency syndrome* are unlikely to produce an acronym, and if they do it is unlikely to become lexicalised. But other factors also affect the creation and consolidation of acronyms: those which can be pronounced syllabically will always be more easily disseminated, as they are quite similar to common lexical elements of natural language. This means that acronyms such as HIES and ETA are more likely to become lexicalised and extended (*hiesa, etakidea*, etc.) than others such as HPIN or HAEE. Some structures are also more likely to produce acronyms and to lexicalise them than others: for instance expressions which have a proper noun in their syntagm (generic common noun + proper noun) adopt other forms of lexicalisation most easily. Thus, if terms such as *Alzheimer's disease* are lexicalised the non generic word will be used as the basic referent (*Alzheimer*).

1.2. As the use of an acronym is disseminated and the term comes to form part of a paradigm, the intuition of speakers will lead them to adapt it in writing, especially if it can be pronounced syllabically. This is shown by written forms in recent years: the 1985 *Diccionario enciclopédico de medicina Dorland* gave "S.I.D.A."

1.2.1 In English the term can be written as AIDS or *aids*. The *Oxford English Dictionary*, for instance, gives: *AIDS*. Also *Aids*, and contains examples of both types. AIDS was widely used between 1982 and 1986 (*Morbidity & Mortality Weekly Rep., McGraw-Hill Yearbk. Sci&Technol., Daily Tel.*), *aids* as from 1985 (*Sunday Times, etc.*) and always AIDS in compounds and with prefixes (pre-AIDS, AIDS-related, etc.).

1.2.2 Both forms appear in both French and Spanish (for instance the 1996 *Vocabulario científico y técnico de la Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales* includes *sida*, though the most widespread form is *SIDA*).

1.2.3 In Basque we can also find both written forms. The 1996 Elhuyar bilingual dictionary gives *HIES* and the *Hiztegia 3000* gives *hies*. The OEE Medical Association includes *HIES* in its dictionary of usage (*Ihardunaldi Medikoetako Hiztegiak*, 1994) and the Manual of Style published by EGUNKARIA proposes *hies* (*hiesa, hiesduna, etc.*).

From the foregoing it can be concluded that we are in the last stage of the lexicalisation process, in which the average speaker (who is neither a doctor nor a linguist) will completely lose the original reference of the acronym and will take and use *hies* as a common lexical element (as occurred for instance with the word *radar*).

2. Regardless of whether the lexicalisation of *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea* results finally in the written form *hies* or remains as *HIES*, the fact is that the term is now very close to being a common word, which in Basque brings up the question of whether or not it should take a determiner.

2.1. Common nouns have a plural referent and generally take a determiner. As exceptions we can cite *andereño* and all those nouns which attribute a common or proper name to the referent, e.g. *aita*, titles, etc. From another viewpoint (*Izen berezia eta anbiguotasuna*. Marc WILMET 1992), we should include in the list of nouns traditionally considered as common nouns all those which designate feast days, mathematical symbols, initials and acronyms, names for inhabitants of particular regions, etc. Proper nouns have a single referent and are usually used without a determiner. The distinction between proper and common nouns is made by using capitals and lower case letters.

2.2. Nouns with a single referent are proper nouns, even if they were originally common nouns and can take a determiner, and they are written with capitals. In declining a distinction is drawn between two types: those which decline like *Euskaltzaindia* and *Bizkaia* (as common nouns but with no determiner in the locative cases) and those which decline like EGUNKARIA and *Etsaiak* (declined including the determiner).

2.3. Acronyms are also declined according to their referents. The referent is usually single (names of institutions) but sometimes equivalents to common nouns can result (*hiesa/aids*). In general elements of certain paradigms behave as common nouns created by phonological restructuring (*hies*) or from proper nouns (*diesel*). But doubts frequently arise.

2.4.. It is advisable to draw up a classification, as the structure of terms lexicalised as proper nouns can have repercussions in their use. In Spanish and French examples

may be found of this: *el río Negro* and *el río de la Plata*, *Le Havre* and *la Trinité*, etc. There are simple nouns (generics such as *Argia*, *Etsaiak*, etc) and words with compound or syntagmatic structures (in which there can also be a generic word, e.g. *Euskadi Irratia*, *Herri Batasuna*). Depending on the internal structure there may be a tendency to use them in one way or the other. *La Real (Sociedad)*, *Athletic (taldea)*, *Euskaltzaindia*, *EGUNKARIA*, *le CNRS*, *El Diario VASCO*, *Hartutako Inmuno-Eskasiaren Sindromea*.

- 2.5. Once a classification is drawn up and the elements influencing use by speakers are considered (*Athletic-ek/Atletixak*) rules of style can be established more easily for both words of common origin considered as proper nouns (single referent) and acronyms undergoing lexicalisation. This matter is closely related to another which is not dealt with in this study but which should nevertheless be looked at: the confusion in the use of designation syntagms of the type "generic common noun+proper noun" in both Basque (*Ama Mesedeetako kalea / Ama Mesedeetakoaren kalea ?*, *Plaza Berria*, *Bilbaina Elkartea ?*) and in administrative Spanish (*calle de Alcalá / *calle Alcalá*, Libro de Estilo de EL PAIS, 1990).